



IPAR EUSKAL HERRIKO ELKARTASUN SAREA ELKARRIZKETA

Duela aste batzuk azaldu zuten Covid-19 birusa dela eta sortu den testuinguruan, zaintza eta elkartasuna oinarri izango dituen elkartasun sarea osatu dutela hainbat gaztek Ipar Euskal Herrian. Egoera horretan, emazte langileen egoeraz ere hitz egin dute bertako kideek, honen bizi baldintzen bereizgarriak azpimarratu nahian. Guzti hori azaltzera dator ondorengo elkarrizketa.

Argitaratu duzuen irakurketan “gerla egoeran” gaudela aipatzen duzue. Zein da egoeraz egiten duzuen irakurketa orokorra?

“Gerla egoeran” girela erraiten dugularik, krisi sanitario honek langileentzat dituen ondorio bortitz eta larriak borrokatzeko “gerlan” girela erran nahi dugu. Ez birusaren kontrako gerlan, Macronek erran duen bezala, bainan sistema kapitalista osoaren kontra. Horrelako krisi batean, pertsona guzien ongizatea eta beharrak alde batera utziz, aberastasuna metatzeko eta gainbeheran zen sistema bat berformulatzeko saiakera hunen kontra. Argi da, etekin ekonomikoa dela sistema honen funtsa, politikariek ere berresten dutena. Ekonomiaren parte handi bat gelditzen delarik sistema osoa kaltetua da eta sektore prekarizatuenek pairatu behar dute krisi hori, langile hauei “indarrak” egitea eskatuz.

Bestalde, egoera hunek epe luzerako ondorioak ekarriko dituela ulertzen dugu, konfinamendu hau gaindituko dutenak. Gure bizitzako esparru guzietan izanen du eragina: lanean "salbuespeneko" neurriak hartzea, kanporaketak, oren gehigarriak, lan sari apaltzeak..., baita etxebizitzak ezin ordaintzearen ondorio larriak, etxetik kanporatzeak, bortizkeriaren emendatzea, indibidualismoa azkartzea, ondokoarekiko mesfidantzararen gailentzea, harremantzeko moldeen aldaketa ondorio sozial eta kultural ikaragarriak izanen ditu.

Testuinguru horretan kokatzen duzu emazte langileen egoera. Zein da subjektu hau jasaten ari den egoera bereizgarria? Zein ondorio ekarri ditu emakume hauen bizi baldintzetan?

Aitzineko erantzunean adierazi dugun bezala, egoera hunek gure biziko esparru guzietan eraginen du eta langileria osoari eraginen badio ere, langile klasearen baitan ere ez digu guzietan berdin eraginen. Argi da, sistema kapitalistaren kontraerrian handituko diren heinean, sistemak bere funtzionamendurako beharrezkoak dituen zapalkuntzak ere azkartuko direla. Arrazakeriaren gorakada (Bidaxuneko erasoak erakusten duen bezala), txertoa afrikan testatzea kolonialismoa (ikus Frantziar medikuek txertoaren frogak Afrikan egiteko proposamena), presoaren egoera (Ocanako espetxean gertatua)... Genero zapalkuntza ere hor kokatzen dugu. Egoera hunetan

emazte langilearen zapalkuntza intentsifikatu eginen dela uste dugu.

Hiru ardatz hartu ditugu konduetan; lan baldintzak, zaintza lanak eta genero bortizkeria (guzia bortizkeria dela ulertzen badugu ere). Lan baldintzei dagokionez, emazte langileek usu lan ezegonkorak edo partzialak dituzte (super merkatuetako saltzaileak, etxe garbitzaileak,...) eta hauen lan baldintzak ainitzez zaildu direla eta zailduko direla pentsa daiteke. Fenomeno huneekin lotura duen beste gai bat zaintza lanena da. Lan hauek gehienetan emazte langileen esku gelditzen dira, bai lansari bidez pagatuak eta bai etxeko esparruan egiten dituzte. Orain, etxean hainbeste denbora pasatu behar dugun garai hauetan, emazteen esku gelditzen dira etxeko lan guztiak eta familia osoaren ongi izatea bermatzea besteak beste. Uste dugu hunek kapitalaren interesetan eginiko lan banaketa sexuala indartu besterik ez duela eginen. Azkenik, genero bortizkeriaren intentsifikazioa ere aipatzen dugu. Sistema bera da bortitza gure ustez, eta langile klaseak pairatzen duen bortizkeria indartuko da egoera huneekin, horrek inpotentzia, frustrazioa eta biolentzia gehiago sortuko du langileen barnean. Gizarte matxista honetan, gizon langileak barnean senditzen duen guzi hori hurbilen duen emazte horren aurka bideratuko du eta beraz indarkeria matxisten frekuentzia eta intentsitatea azkarki emendatuko dela aurreikusten dugu, azken asteetako albisteek baieztatu duten gisan. Gainera, emazte langileak 24 orenez beren erasotzailearekin bizirautea behartzen ditu egoera honek.

Lehanago erran bezala, egoera hau ez da konfinamendutik ateratzean bukatuko, egoera hunek zapalkuntza betikotzeko oinarriak ezartzen ditu. Emaztearen zapaldu izaeran sakontzen du, lan baldintzak kaxkartzean subjektu debalatu bat bezala agerraraziz, zaintza lanetara lotzean ezarri zaion errola eta sozializazioa azpimarratuz, eta bortizkeria matxista jasanaraztean langileen artean ere bortizkeria eta zapalkuntza erreproduzitzen.

Emazteen egoera konkretuari, zein egoera orokorrari erantzuteko beharra sumatu duzuela adierazi duzue. Testuinguruan politika egiteko mugak badira ere, zein baliabide eta bitarteko jarri ditu sareak langileriaren eskuetan? Emakumea bizitzen ari den auzi konkretuei erantzuteko bitarteko konkretuak?

Birusaren hedapena, gure heinean mugatzeko bainan bereziki errepresio handia dela eta, gure burua babesteko, gure askatasun sozio-politikoaz azkarki murriztua da. Ondorioz, herri edo auzoetan osatu diren elkartasun sare lokalen bidez eta sare sozialen bidez auto-antolatzeke deia hedatzen dugu, konfinamendua bukatzean ere martxan segitzea nahi genukeenak.

Konkretuki elkartasun sare hauetan emazte langilearen egoera konduetan hartuz eta hauei babes eremuak sortzeko baliabideak eskainiz : elkartasun sareetan sartuz, saltokietan eta etxeko ate aitzinetan afitxen bidez elkartasuna eta zaintza helaraziz...

Adibidez proposatzen dugu etxeetako ateetan, ate horren gibelean laguntza atxemaiten ahalko dutela adierazten duen afitxa ttipi bat ezartzea. Badakigu ez dela ainitz, eta egoera honi bere osotasunean erantzun behar diogula. Espazio deesberdin guzietan emazteek pairatzen ditugun bortizkeriei erantzun nahi diegu : produkzio esferako lanetan, bikotean, familian, erreproduzio lanetan... Emeki emeki langileen interesen aldeko guneak sortu nahi genituzke, esplotazioa eta zapalkuntzak behin betiko bukatzea teoriarik eta praktikan borrokatuko ditugun guneak.